

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

221/2016 Foru Agindua, irailaren 12koa, Okondoko udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen 173. artikuluan antzemandako huts materiala zuzentzekoa

I. AURREKARIAK

Bakarra. Okondoko Udalak, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean 2016ko abuztuaren 23an jasotako idazki baten bidez, huts bat zuzentzeko espedientea helarazi zuen; hain zuzen, lur erabilerarekin zerikusirik ez duten eta nekazaritzako ustiategiei lotuta dauden eraikinen, arrain-haztegien, eta nekazaritzako ustiategietan eta artisau nekazaritzako industrian lortutako produktuak ustiatzen dituzten nekazaritza industrien lurzatiaren gehieneko okupazioaren parametroari buruzko hutsa.

II. OINARRIAK

Lehenengoa. 2016ko uztailaren 8an, Edurne González andreak idazkia aurkeztu zuen Okondoko Udalean, zeinetan eskatzen baitzuen zuzendu zedila araudiko 173. artikuluan, lur erabilerarekin zerikusirik ez duten eta nekazaritzako ustiategiei lotuta dauden eraikinei, arrain-haztegiei, eta nekazaritzako ustiategietan eta artisau nekazaritzako industrian lortutako produktuak ustiatzen dituzten nekazaritza industriei buruzkoan, lurzatiaren gehieneko okupazioaren parametroan antzemandako hutsa.

Eskatzailearen iritziz, aipatutako parametroak lurzoru urbanizaezinean beste eraikuntza batzuetarako ezarritakoaren parekoa izan beharko luke.

Bigarrena. Edurne González andrearen eskaerari buruzko txostena egin du udal arkitektoak, eta adierazi du lurzati hartzailearen gehieneko 0,50eko parametroa ez datorrela bat araudiko 173. artikuluan ezarritako gainerako okupazio parametroekin. Horregatik, arkitektoaren arabera, hutsa dago arauan ageri den zifran: ehuneko 50 jarri beharko luke ehuneko 0,50 jartzen duen lekuan.

Hirugarrena. Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, honako hau xedatzen du 105.2 artikuluan:

“Herri-administrazioek, beren kabuz edo interesdunek eskaturik, edozein unetan zuzendu ditzakete beren egintzetako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak”

105.2 artikulua interpretatzeari lotuta lehendik dagoen jurisprudentziaren arabera, hutsak argia izan behar du; ez da inolako zentzuzko zalantzarik izan behar, eta ez da beharrezko izan behar inolako interpretazio juridikoko prozesurik.

Hizpide dugun kasuan, begi bistakoa da lurzatiaren okupazioaren ehuneko 0,50eko parametroak bideraezin egiten duela aipatutako lurzoru urbanizaezinean baimendutako eraikuntzak gauzatzea.

Hori dela eta, argi dago ehuneko 0,50eko zifra huts materiala dela, eta 30/1992 Legearen 105.2 artikuluan aipatutako kasuan sartzen da. Beraz, zuzendu egin behar da, horren ordez lortu nahi den xedearrekin koherentea den zifra jarrita; hain zuzen, ehuneko 50.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Zuzentzea Okondoko arau subsidiarioen 173. artikuluan, lur erabilerarekin zerikusirik ez duten eta nekazaritzako ustiategiei lotuta dauden eraikinei, arrain-haztegiei, eta nekazaritzako ustiategietan eta artisau nekazaritzako industrian lortutako produktuak ustiatzen dituzten nekazaritza industriei buruzkoan, gehieneko okupazioaren parametroan antzemandako huts materiala; ehuneko 50 izango da aurrerantzean, indarreko arau subsidiarioetan jasotako 0,50en orde.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du eta beronen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da bi hilabeteko epean, berau jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salan.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko irailaren 12a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO